

NAZIOARTEKO MUGIKORTASUNA

2009/09/12

Goi Eskola Politeknikoak (GEP) nazioarteko mugikortasunaren aldeko apustua egin du. Hau dela eta, ikasleek parte hartu dezaten, hainbat programa eskaintzen ditu urtero:

- ERASMUS ikasketak: Ikasleek seihileko akademikoa egiten dute atzerrian.
- Iraupen luzeko ikasketa amaierako proiektua: Ikasleek ikasturte osoko iraupena duen egonaldia egiten dute atzerriko unibertsitate, enpresa eta zentro teknologikoetan.
- Diploma bikoitza: Ikasleek gutxienez urte eta erdiko egonaldia egiten dute unibertsitate batean, gaur egun Frantzian.
- Goier programa: Ikasleek bigarren zikloa edo masterra egiten dute atzerrian.



Alde akademikoari begiratuz, ikaslearentzat interesgarriena izan daitekeen programa diploma bikoitza da. Goi Eskola Politeknikoak diploma bikoitzeko 6 hitzarmen ditu Frantziako 4 unibertsitateekin. *Institut National des Sciences Appliquées de Toulouse (INSAT), École Centrale de Nantes (ECN), École d'Ingénieurs pour l'Énergie, l'Eau et l'Environnement (ENSIEG), École Nationale Supérieure d'Electrotechnique, d'Electronique, d'Informatique, d'Hydraulique et des Télécommunications de Toulouse (ENSEEIH)*. Hautatze prozesu baten ostean, promozio bakoitzetik 3-4 ikasle hautatzen dira programa honetan parte hartzeko.

Praisku Aranburu, Aitor Lizarazu eta Unai Aldasoro GEP eta INSATeko ikasleek, ikasketak amaitu berri dituzte eta hirurek bi tituluak lortu dituzten lehen promozioa osatzen dute: Mondragon Unibertsitateko Industri Ingeniari titulua eta INSATeko Diplôme d'Ingenieur titulua.

Ikasle hauek lehen bi urte eta erdia GEPen ikasi zuten. Hirugarren urteko bigarren seihilekoan INSATen hasi ziren ikasten. Bakoitza Frantziako unibertsitate bateko ikasle talde desberdin baten hasi zen, horrela egoera berrira moldatzen ikasi zuten. Urte eta erdi pasa ondoren, berriz itzuli ziren GEPera INSATen jasotako esperientzia hemengo ikasleekin partekatuz.

Atzerriko esperientziaren balorazioa positiboa izanik, hirurek ikasketa amaierako proiektua atzerrian egitea erabaki zuten. Praisku Aranburu, Danobat taldeko Overbeck, Alemaniako enpresarekin jarri zen harremanetan. Uztailean, bere proiektua amaitu zuen eta orain Danobat taldeko enpresa batean hasiko da lanean. Praiskuren proiektua eskaintzen homogeneizazio, estandarizazio eta automatizazioari buruzkoa izan zen.

Unai eta Aitorren kasuan, biek bidali zituzten curriculumak atzerriko enpresetara eta Sulzer Pumps, Suitzako enpresan onartuak izatea lortu zuten. Beraien proiektua bonben diseinu hidraulikoaren prozesua hobetzea izan zen eta oso ongi baloratu zuen INSATek.

Hiru ikasleek bi unibertsitateko tituluak izatean, arazorik gabe egin

dezakete lan Espainia edo Frantziako edozein enpresetan.